

Hautapen naturala



SANTI LEONÉ
@ororostorm

Filmak *Bird Box* du izena, eta Netflixen dago ikusgai. Han-hemen irakurri dudanaren arabera, istorioa etorkizun post-apokaliptikoan gertatzen da; protagonistak, Sandra Bullockek antzeztuak, begiak estalita dituela egin behar ditu egin beharreko gauza guziak, bere biktimak ikusmenaren bidez harrapatzen dituen munstro batek ez harrapatzekotan bederen. Nik ez dut oraindik ikusi, baina litekeena da *toki lasai batean* gel-ditzea –a quiet place, hobeki ulertzen baduzue– ikusi gabe.

Kontua da jendea hasi dela Sandra Bullocken pertsonaia imitatzen; jendea hasi da, alegia, begiak estalita dituela etxean barna ibiltzen –edo lasterka egiten–, gidatzen, karrikan paseatzen edo errepidea zeharkatzen. Netflixek ohar bat atera behar izan du gogorazteko gauza horiek guziak horrela egitea arriskutsua izan litekeela.

Bird Box erronkaren ondorioz, YouTubek erabaki du egilearen bizia arriskuan jar lezaketen ekintzak erakusten dituzten bideoak debekatzea. Haurrak dira erabaki hori hartzeko emandako aitzakia, baina nik ikusi ditudan bideo guziak helduak –maiz ez preseski gazteak– dira nagusi.

Ingalaterran eman nuen bolada batean, gogoan dut supermerkatu bateko kartelek bezeroei oroitarazten zirela frutak eta barazkiak garbitu egin behar zirela jan baino lehen. *Gizarteak du errua, kontu estrukturala da, hezkuntzaren ardura da, hizkuntzaren erabilera da afera...* Erantzukizun pertsonalak ez du balio, jakina, den-dena azaltzeko, baina YouTube-ri gure buruarengandik babesteko eskatu behar badiogu, Netflixek argitu behar badigu benda bat begietan flanbeatu bat prestatzea ez dela nahitaez munduko ideiarik onena, akaso gure gizartean infantilizazioa ez ote den urrunegi ailegatzeko ari galdegin behar genioke gure buruari. Eta hautapen naturalari utzi bere lana egiten. ●

BITARTEAN, ALTSASUTIK
EZ OSO URRUN...



ADUR

“EÜSKARA IKASTE AISA DA,
ZONBAITENTAKO PHÜRÜ!”

DYLAN DENNY-STEARN INGLIS, EUSKARA IKASI DUEN INGELESA

Ingalaterrako Dylan elkarrizketatu du Xiberoko Botzak irrati-katean, eta asko zabaldu da bere mezua. Zuberuan da Dylan, zuberotarren egoera linguistikoa ikertzen. Urte eta erdiz euskara ikasi du, lehenik batua eta ondotik euskalki ugari, horien artean zuberotarra. Elkarrizketan kontatu du euskara ikasten “kuriostatez” hasi zela, eta gustukoa izanik, jarraitu egin zuela. Barnetegian, eta interneten laguntzaz, azkar ikasi daitekeela azaldu du. “Eüskara zinez berezia da enetako”. **XIBEROKO BOTZA (2019/01/15)**

